

# 5. Kanalak

Kanalak erabiliko ditugu balorezko proposamena (produktua) bezeroengana ailegatu dadin (dendara, eskuragarri izateko), gure enpresa nola komunikatzen den eta bere merkatu-segmentuetaraino nola iristen den deskribatuko dugu.

Lehenik eta behin, produktua guregana ailegatuko da Gasteizen, ez zuzenean bezeroengana. Guk gure denda propioa daukagu eta guk bezeroei salduko diegu. Honetaz gain, kuadroa Espainiako Leroy Merlínen salduko da. **Leroy Merlín** denda guztietara ailegatuko da Transvolando enpresari esker. **Transportes Transvolando SL** enpresak transporteaz arduratuko da, hau da, Leroy Merlín guztietara eta gure Gasteizeko dendara eramango ditu gure koadroak.

Lehen aipatu dugun bezala, zailtasunak dituztenentzat instalatzaile bat ipiniko die kuadroa. Honek garraiatzeko beste enpresa ezberdin bat aukeratu dugu: **Enterprise Rent-A-Car-Vitoria, Federico Anda pabilioia, Portal de Betoño Kalea, 11, 01013 Vitoria-Gasteiz, Álava.**

Guk aukeratu dugun kanala kanpoko da, izan ere, ez da enpresa ekoizlearen jabetzagoa, baizik eta kanpoko batena, hain zuzen ere, Transportes Transvolando SLkoa. Gure bitartekariak txikizkariak dira, produktua azken erabiltzaileari saltzen diogulako gure Gasteizeko dendan eta baita Leroy Merlínen ere nahiz eta beste enpresa batek kuadroa ekoiztu.

Ikusita ibilbidea oso luzea dela (Galiziako enpresa batek egiten duela koadroa eta Madrileko garraio enpresa batek Galiziara joaten dela, bertatik Gasteizera produktua transportatzeko) gure kanala luzea da.